

## **ASEGURUAK**

Gaur egun ikastetxean bi Eskola Aseguru mota ditugu:

- a) **Aseguru pribatua MGSrekin Ikaslarin bidez zerbitzu medikua eskaintzen duena.**

Borondatezkoa bada ere, Eskola Kontseiluaren erabakiz, ikastetxeko 1. eta 2. DBHko ikasle guztiek daukate aseguru hau.

Gainontzeko mailetan familiek erabakitzen dute kontratatu ala ez.

Honen truke familiek 12,50 € ordaintzen dute ikasleko urtean.

Aseguru honek ikastetxean bertan laguntza medikua bermatzen du. Lehenego medikuari deitzen zaio, honek ikaslea artatu eta dagokion zentrura desbideratu behar den erabakitzen du, gure kasuan QUIRONera. Hantxe ikaslea hartu eta tratatuko dute.

Garraioa familiei dagokie.

- b) **Gizarte Asegurantzaren Eskola Asegurua.**

**Derrigorrezkoa** 3.DBHtik gorako ikasle guztientzat. 1,12 € ordaintzen da ikasleko urtean.

Ez dago sorospen medikurik ikastetxean. Familia deitu eta honek hartu behar du ardura. Kasu honetan ez dago aurretiko diagnostikorik eta familia lehen unetik bertatik etorri beharko du ikastetxera ikaslearen ardura hartu eta hurrengo zentru kontzertatuetakoa batera eraman: San Juan de Dios, Centro Medico Gane, JF Larruscain Zamacona, Clinica Virgen Blanca.